

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK, 2019ko LEHENENGO SEIHILEKOAN BILTZARRAK ANTOLATZEKO

EHAA, 2018/10/26

http://www.euskadi.eus/eusko-jauraritza/-/diru_laguntza/2019/ikerbilerak-1semestre/

Helburua

2019ko **lehenengo seihilekoan** Euskal Autonomia Erkidegoan ikerketa zientifiko presentzialaren esparruko biltzarrak eta bilkurak antolatzeko laguntzaren deialdia egitea.

Baztertutako ekintzak:

Batez ere prestakuntzarako diren ikastaro eta jarduerak; hala nola, prestakuntza jardunaldiak, tailerrak eta irakaskuntzarako zein ikaskuntzarako gaikuntza mintegiak, doktorego programei, masterrei eta/edo graduondokoei loturiko bilkurak, baita etengabeko prestakuntzako jarduerak, atak zabaltzeko jardunaldiak eta zuzenean ikerketa zientifikoaren esparruari lotuta ez dauden jardunbide egokiak partekatuzeko jardunaldiak ere.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak:

Aukera daitezkeen gastuak	Aukeratu ezin diren gastuak
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Antolakuntza eta zabalkunde gastuak (webgunea, laguntza zerbitzua, jardueraren argitalpena, kafe atsedendien kostua) ✓ Hizlarien bidaiak, ostatua, mantenua eta haborokina ✓ Bertaratzeko ikertzaile gazteei ematen zaizkien laguntzak (30 urtera arteko, horiek barne) ✓ Kongresuetan sariak emateko gastuak. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gastu sozialak (bertaratutako otorduak, jolas ekintzak, dietak eta protokolo gastuak) ▪ UPV/EHUren berezko elementuen erabilera ▪ UPV/EHUko langileen ordainsaria eta ikerketako bekadunentzako diru-kopuruak ▪ Enpresa hornitzaileak UPV/EHUrekiko lotura duenekoak ▪ Gonbidatutako hizlarien bidaiak, ostatua eta mantenua, baldin eta laguntzaren xede den ekidaldiaren programan sartuta ez badaude ▪ Bilera zientifikoetan, ez da inola ere finantzatuko sariak emateko gastua.

Eskaera aurkezteko epea

2018ko azaroaren 28ra arte (egun hori barne)

UPV/EHUko PROZEDURA:

Eskaera behar bezala aurkeztutakotzat hartuko da UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeak sinadura elektronikoen bidez bermatzen badu epe barruan. Beraz, ikertzaile interesdunek beren eskaera aplikazioan amaitu eta posta elektronikoz jakinarazi beharko dute igz.deialdiak@ehu.eus helbidean, **azaroaren 26ra arte 08:00 etan (egun hori barne)**. Egun horretatik aurrera ezin izango da sinadura eskaeraren epean bermatu.

Eskaerak aurkeztea:

1. Eskaerak http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/diru_laguntza/2019/ikerbilerak-1semestre/ helbideko aplikazioaren bidez telematikoki eskuratu ahal izango den formularioaren bidez bete beharko dira.
2. Horretarako, eskatzaileak alta egin beharko du erabiltzaile gisa, eta aipatu aplikazioan zehaztutako argibideei jarraitu beharko die.
3. Eskaera betetakoan, eskatzen diren dokumentuak erantsiko dira.
4. Aurreko izapidea amaitutakoan, igz.deialdiak@ehu.eus helbidean **jakinarazi beharko du, azaroaren 26ra arte (egun hori barne)**, UPV/EHUren legezko ordezkariaren sinadura elektronikoa bideratu ahal izateko. **Sinadura hori gabe eskaera ez da erregistratuta geratuko.**

Dokumentazioa:

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

1. **Jardueraren memoria zientifikoa, honako hauek jasoko dituen:**
 - a. Ekimenaren garrantzia.
 - b. Behin-behineko edo behin betiko egitaraua, egutegia eta hizlariak, eta jardueraren berri ematen duen web orriaren esteka.
 - c. Batzorde antolatzailea, batzorde zientifikoa eta hautaketa batzordea nortzuek osatzen duten, halakorik baldin badago.
2. **Eskatutako zenbatekoaren justifikazioa**, kontzeptua, unitateak, helburua, zenbatekoak eta aurrekontuak zehaztuta. Proforma fakturak erantsi beharko dira, ahal den heinean.
Oharra: puntu honetan, **gutxien-gutxienik, Eusko Jaurlaritzari eskaturiko funtsak** zehaztu behar dira (eskariaren D atala), nahiz kongresu osoaren gastuen justifikazio osoa ere ager daitekeen.
3. **Deialdia egiten duen eta/edo ekimena antolatzen duen erakundearen saileko kontseiluaren edo gorengo mailako batzordearen akta**, ekimenaren deialdia egiteko edo hura antolatzeko onarpena, konpromisoa eta erantzukizuna berariaz jasotzen duena.
4. **Gonbidatutako parte hartzaileek parte hartzea onartu dutelako egiaztagiria.**
Oharra: gonbidatutako txostengileek berek sinatutako gutun, mezu elektronikoa edo beste edozein agiriren bidez, beti ere, kongresuan parte hartzea

onartu eta parte hartzera etorriko direla probatuz. Dokumentu hauen artxibo bakar batean batu beharko dira eta aplikazioan jarri dagokion eremuan.

5. **Erantzukizunpeko adierazpena.**

Oharra: helburu bererako lortu den edo lortu ahal den subentzio, laguntza, diru sarrera edo bestelako baliabide justifikatu behar da, eskaera egiteko inprimakiaren C atalean adierazi bezala.

- Emandako subentzioen kasuan, ebazpen agertu beharko da, emandako zenbatekoa bertan dela.
- Eskatu eta ebazteko diren subentzioen kasuan, kasuan kasuko deialdira aurkeztutako eskaria agertu beharko da.
- Bestelako diru sarreraren kasuan, eragilearen gutun sinatua agertu beharko da, kongresuaren finantzetan laguntzeko konpromisoa eta emango duen zenbatekoa erakutsiz.

OHAR GARRANTZITSUA:

Deialdi honetan aurkeztutako gastuen aurrekontuak **bat etorri beharko du zeharo** eskabidean zehaztutako diru sarreraren aurrekontuarekin eta, kasuan kasu, honako hauek jaso: izena emateko kuotak + emandako subentzioak + eskatutako subentzioak (barne Eusko Jaurlaritzari eskaturikoa) + bestelako diru sarrerak.

Laguntza honek emandako zenbatekoaren hirukoitza den zenbateko bat justifikatzeko betebeharra dakar (Eusko Jaurlaritzak biltzarrean zehar deialdian baimendutako kontzeptuetan eginiko gastuaren herena soilik ordaintzen du). Beraz, emakidaren ondoren, kreditua erreserbatuta geldituko da. Unibertsitatearen aurrekontuetan beste finantziazio iturri batzuk erabilgarri badaudela egiaztatu ahala, pixkanaka Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzari dagokion zenbatekoa ordaintzen joango da.

Erakundearen datuak:

Erakundearen (UPV/EHU) datu hauek behar dira eskaera betetzeko:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, zk.g.
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa (Bizkaia)
- **Legezko ordezkaria:** JOSÉ LUIS MARTÍN GONZÁLEZ
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea

Harremanetarako datuak:

UPV/EHU:

Tfno.: 94 601 8167 Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

Eusko Jaurlaritza:

- Arantza Elgarresta
Tfno.: 945 01 55 24 Helbide elektronikoa: huisl252@euskadi.eus
- Patxi Esparza
Tfno.: 945 01 82 95 Helbide elektronikoa: huisibas@euskadi.eus